

NAFARROAKO PARLAMENTUKO MAHAIARI

Lehendakariak proposatuta, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako ADIERAZPEN INSTITUZIONAL hau aurkeztu da, Mahaiaren eta Eledunen Batzarraren 2022ko urtarrilaren 13ko bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin:

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

Nafarroako Parlamentuak bere doluminak helarazi nahi dizkio Sara Pina Yereguiren familiari, eta aldekotasuna adierazten die haren lagunei eta Castejongo hezkuntza-komunitateko irakasleei. Hainbestera inoko astinaldian eta saminean, Nafarroako Parlamentuak bipilki agertzen ditu emakumeen aurkako indarkeriaren gaitzespen eta errefusa.

Emakumeen aurkako indarkeriak emakume guztiei eragiten die, edozein delarik ere haien adina, posizio sozioekonomikoa edo nazionalitatea. Errepikatu nahi dugu emakumeen aurkako indarkeria oinarriturik dagoela maila sinbolikoan eta materialean gizonak emakumeen gainetik kokatzen dituzten botere-harreman batzueta, helburu dutenak emakumeak gizonekiko sumisio-egoera betikotuan bizi daitezen.

Emakumeen aurkako indarkeria mamitzen da forma eta jarrera ezberdinatan, kalte edo oinaze fisiko, psikologiko, sexual edo ekonomikoak sor ditzaketenak; emakumeen duintasun eta osotasun fisiko eta moralaren aurkako erauntsi latza da eta, horrenbestez, giza eskubideen urraketa larri eta onartezintzat jo beharrekoa. Horrelako gertakari bakoitza detektatu, ikusbidean jarri, errefusatu eta gaitzestea ezinbestekoa eta urgentea da emakumeen aurkako indarkeriaren agerpen ororen prebentzioan integraltasunez jarduteko.

Horregatik guziagatik, Nafarroako Parlamentuak honako hau azaltzen du:

1. Nafarroako Parlamentuak errefusatu eta gaitzetsi egiten du Tuterako bizilagun Sararen hilketa, eta bere elkartasuna adierazi nahi die hildakoaren familiari eta ingurune hurbilari une latz honetan.
2. Nafarroako Parlamentuak beste behin ere berresten du errefusatu eta gaitzetsi egiten duela gure gizartearen gerta daitekeen eraso, indarkeria nahiz jarrera sexista oro, eta konpromisoa hartzen du emakumeen aurkako indarkeria desagerrazten, segurtasuna hobetzen eta emakumeek ingurune orotan askatasun osoa baliatu ahal izatea bermatzen laguntzeko.
3. Nafarroako Parlamentuak, erakunde publikoa den aldetik, Emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko apirilaren 10eko 14/2015 Foru Legeak tokian-tokian ezartzen dituen betekizunak betetzea bermatzeko konpromisoa hartzen du.
4. Nafarroako Parlamentuak gizarte osoari dei egiten dio emakumeen eta gizonen arteko desberdineria betikotzen duten rol eta estereotipo sexistetan oinarritutako kultur eredu aldaketa dezaketen, bai eta indarkeria matxista errefusatzen jarrai dezaketen eta indarkeria matxistetatik bizirik aterak diren emakumeei babesia ematen jarrai dezaketen ere.

5. Nafarroako Parlamentuak herritarrei gonbit egiten die ez daitezen ezer egin gabe gelditu emakumeen aurkako indarkeriaren eta erasoen aitzinean, eta emakumeek segurtasunez eta askatasunez bizitzeko eskubidea dutela erreklamatzen du.
6. Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak elkarretaratzea eginen du ostegunean, urtarrilaren 13an, eguerdian, erakundearren atarian, hilketa hau beste behin gaitzesteko eta emakumeen kontrako indarkeria oro errefusatzeko.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 11n

HUALDE
IGLESIAS
UNAI -
72675592P

Firmado
digitalmente por
HUALDE IGLESIAS
UNAI - 72675592P
Fecha: 2022.01.12
14:13:18 +01'00'

LEHENDAKARIA
UNAI HUALDE IGLESIAS

A LA MESA DEL PARLAMENTO DE NAVARRA

A propuesta de la Presidencia y al amparo de lo establecido en el Reglamento de la Cámara, se presenta para su debate y votación en la Mesa y Junta de Portavoces del jueves 13 de enero de 2022, la siguiente DECLARACION INSTITUCIONAL

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

El Parlamento de Navarra quiere mostrar sus condolencias a la familia de Sara Pina Yeregui, y su apoyo a sus amistades y al profesorado de la comunidad educativa de Castejón. Ante tanta conmoción y dolor, el Parlamento de Navarra muestra con contundencia su condena y rechazo a la violencia contra las mujeres.

La violencia contra las mujeres afecta a todas las mujeres sin distinción de edad, posición socioeconómica o nacionalidad. Queremos reiterar que la violencia contra las mujeres se basa en las relaciones de poder que, en el plano simbólico y material, sitúan a los hombres por encima de las mujeres y tienen por objeto perpetuar que las mujeres vivan en una situación de sumisión frente a los hombres.

La violencia contra las mujeres presenta diferentes formas y actitudes y pueden implicar daños o sufrimientos de naturaleza física, psicológica, sexual o económica, supone un serio atentado contra la dignidad y la integridad física y moral de las mujeres, y en consecuencia conlleva, una grave e intolerable violación de los Derechos Humanos. La detección, visibilización, rechazo y condena de cada una de ellas es imprescindible y urgente para trabajar íntegramente en la prevención de todas las manifestaciones de violencia contra las mujeres.

Por todo ello el parlamento de Navarra expone:

1. El parlamento de Navarra manifiesta su más absoluto rechazo y condena ante el asesinato de Sara, vecina de Tudela, y muestra su apoyo y solidaridad con la familia y entorno cercano en estos momentos tan difíciles.
2. El parlamento de Navarra se reafirma, una vez más, en el rechazo y la condena a cualquier tipo de agresión, violencia o actitud sexista que se produzca en nuestra sociedad y se compromete a colaborar para eliminar las violencias que sufren las mujeres, mejorar la respuesta institucional y garantizar el pleno ejercicio de la libertad de las mujeres en todo tipo de entornos.
3. El Parlamento de Navarra se compromete como institución pública a garantizar el cumplimiento en lo local de las obligaciones en la Ley Foral 14/2015, de 10 de abril, para actuar contra la violencia hacia las mujeres.
4. El parlamento de Navarra apela a toda la sociedad para cambiar el modelo cultural asentado en roles y estereotipos sexistas que perpetúan la desigualdad entre mujeres y hombres, así como a seguir mostrando su rechazo a la violencia machista y su apoyo a las mujeres supervivientes de las violencias machistas.

5. El Parlamento de Navarra invita a la ciudadanía a que no permanezca impasible frente a los diferentes tipos de violencias que sufren las mujeres y reclamamos el derecho de las mujeres a vivir con seguridad y libertad.
6. El Pleno del Parlamento de Navarra se concentrará a las doce horas el jueves 13 de enero en la puerta de dicha institución para manifestar una vez más su condena de este asesinato y el rechazo a toda violencia contra las mujeres.

En Pamplona-Iruña, a 12 de enero de 2022

HUALDE
IGLESIAS
UNAI -
72675592P

Firmado
digitalmente por
HUALDE IGLESIAS
UNAI - 72675592P
Fecha: 2022.01.12
14:39:14 +01'00'

EL PRESIDENTE
UNAI HUALDE IGLESIAS